



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024-ko Otsaila	
SEME-ALABEN NEUROGARAPENAREN NAHASMENDUEN ARRISKUA SAIHESTEKO ASMOZ BALPROATOA GIZONETAN ERABILTZEARI BURUZKO GOMENDIOAK	1 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAZIOAREKIN LOTUTAKO AKATS ETA ARRISKU IRAUNKORRAK	2 Jarraitu irakurtzen
AHOTIKO ANTISORGAILUAK ORDEZTEKO EZINTASUNA	3 Jarraitu irakurtzen
ERREZETA-PRESKIPZIOKO MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILEKO BERRITASUNAK	4 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - INFAC buletina: Osteoporosiaren tratamendu farmakologikoa - SEFAPen infografia berria: Gehiago jakin nahi duzu haurren infekzioak maneiatzeko moduari buruz? - Aztertuko den medikamentu berria: zitisiniklina/zitisina 2024an saihestu beharreko medikamentuen zerrenda (<i>Revue Prescrire</i>) - Farmakoaren jatorrizko indikaziotik urrun dauden indikazio berriak: abantaila gehigarria ote?	5 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARPENA	6 Jarraitu irakurtzen
ZOSTER HERPESAREN KONTRAKO TXERTOARI BURUZKO INFOGRAFIA	7 Jarraitu irakurtzen
ARABAKO FARMAZIETAN MEDIKAMENTU PEDIATRIKOAK EMATEKO SEGURTASUNA HOBETZEKO KANPAINA	8 Jarraitu irakurtzen

2024ko urtarrilaren 15ean, Espainiako Medikamentu eta Produktu Sanitarioen Agentziak (AEMPS) segurtasun-ohar bat argitaratu du, non Eskandinaviako herrialdeetako (Danimarka, Norvegia eta Suediako) zenbait erregistrotan egindako atzera begirako behaketa-azterketa [EUPAS34201](#) baten emaitzak jasotzen dituen. Emaitzok aditzera ematen dute hurrek neurogarapenaren nahasmendua izateko arriskua handitu egin zela aitek kontzepzioaren aurreko hiru hilabeteetan balproatoa jaso zutenean, lamotrigina edo lebetiracetama monoterapiari jaso zuten gizonen seme-alabekin erkatuta.

Gizonetan balproatoa erabiltzeko gomendio hauek ezarri dira seme-alabentzako arrisku potentzial hori saihesteko:

- Epilepsian edo nahasmendu bipolarrean aditua den espezialista batek hasi edo gainbegiratu behar du tratamendua.
- Balproatozko tratamendua jasotzen ari diren gizonei arrisku potentzial hori jakinaraziko zaie.
- Gizonezko pazienteekin baloratuko da balproatoa hartu bitartean eta tratamendua eten eta gutxienez 3 hilabete igaro arte neurri antikontzeptiborik ezarri behar den, baita bikotekidearentzat ere.
- Gizonezko pazientei jakinaraziko zaie aldizkako azterketak egin behar zaizkiela balproatoak tratamendu egokiena izaten jarraitzen duen ebaluatzeko eta beste tratamendu-aukera batzuk baloratzeko.
- Gizonezko pazientei aholkatuko zaie espermarik eman ez dezatela ez balproatozko tratamendua jaso bitartean ez tratamendua eten eta gutxienez 3 hilabete igaro arte.

Espainian merkaturatzen diren eta balproatoa daukaten medikamentuak: *Ácido valproico* Aurovitas®, Depakine®, Depakine Crono®, Valproato Altan®.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, MUH (FV), 1/2024 oharra [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Emergency Care Research Institute (ECRI) institutuak, *Institute for Safe Medication Practices* (ISMP) institutuarekin batera, txosten bat argitaratu du 2023an Ameriketako Estatu Batuetako pazienteen segurtasuna arriskuan jartzen duten eta haien ustez sistema eta prozesu asistentzialetan aldaketa egingarriak ezarri saihestu edo minimiza litezkeelako erakunde sanitarioek heldu behar dieten 10 kezka larrienei buruz. Oraingoan, txostenean jasotako 10 arazoetatik 3k medikamentuen erabilerarekin lotutako arriskuak dituzte hizpide:

- Medikamentuak modu seguruan ematen direla bermatzeko “bost zuzenak” direlako ez bakarrik (pazientea, farmakoa, dosia, bidea eta denbora) ez fidatzea.
- Blokeatzaile neuromuskularrak ustekabeaz ematea.
- Trantsizio asistentzialetan medikazioa kontziliatzeko akatsak egitea.

Medikazioaren kontziliazioa da trantsizio asistentzialetan komunikazioa hobetzeko eta medikazio-akatsak murrizteko asmoz sortu den praktika. Prozesu formala eta diziplina anitzekoa da eta honako urrats hauek egitea eskatzen du:

- Historia farmakoterapeutikoa edo pazientearen hartzen ari den medikamentu guztien zerrenda osoa eta zehatza eskuratzea.
- Zerrenda hori trantsizio asistentzial bakoitzean preskribatutako medikamentu berriei konparatzea, diferentzia oro ebazteko eta horrela omisioak, dosiei buruzko akatsak, bikoiztasunak eta egon litezkeen interakzioak saihesteko.
- Prozesua jarraitutasun asistentzial guztian egiten den trantsizio bakoitzean gauzatzen dela ziurtatzea.

- Eta bai pazienteak, bai artatzen duten profesionalek, bai zaintzaileek une oro edukitzea eskuragarri medikazioaren zerrenda osoa, zehatza eta eguneratua.
- Akats-arriskua handitu egiten da pazienteek hartzen dituzten medikamentuen kopuruak eta eritasun kronikoen kopuruak gora egin ahala.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke ISMP-España buletina.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 AHOTIKO ANTISORGAILUAK ORDEZTEKO EZINTASUNA

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak jakinarazten du ezen, segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik eta erabiltzaileek farmakoak hartzean akatsik egin ez dezaten, 2024ko urtarrilaren 12tik aurrera **EZ dela baimentzen** farmaziek egunero hartzeko antisorgailuen aurkezpenak eta atsedeen-astea daukaten antisorgailuen aurkezpenak ordezteak.

Hau da, 28 edo 84 konprimatuko aurkezpena duen antisorgailu bat **EZINGO da ordeztu** osaera eta forma farmazeutiko berbera baina 21 edo 63 konprimatuko aurkezpena duen antisorgailu batez, eta alderantziz. Aitzitik, DOE talde berekoak diren eta, beraz, osaera, forma farmazeutiko eta aurkezpen berbera daukaten antisorgailuek elkar ordeztu ahalko dute, araudiak ezartzen dituen kasuetan. Errezeta elektronikoko sistemak jada ez du onartzen ordezen hori egiterik.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ERREZETA-PRESKIPZIOKO MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILEKO BERRITASUNAK

Hona hemen 2024ko urtarrileko berritasunak:

Febrero 2024		
	Asmarako terapia hirukoitz inhalatua	Trimbow® 87/5/9 mcg (beklometasona/formoterol/glicopirronio bromuroa). <u>Finantzatutako*</u> indikazio berria: asmarako mantentze-tratamendua ekintza luzeko beta2 agonista batez eta kortikosteroide inhalatu baten dosi ertain batez osatutako mantentze-konbinazio batekin egokiro kontrolatuta ez dauden eta aurreko urtean exazerbazio asmatiko bat edo batzuk izan dituzten helduentzat. * Indikazioa 2022ko abuztutik zegoen baimenduta, baina ez zegoen finantzatuta. Fitxa teknikorako esteka

 Indikazioa, finantzaketa edo preskribatzeko eta emateko baldintzak zabaltzea

2020ko urtarrilaz geroztik izandako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

INFAC buletina: Osteoporosiaren tratamendu farmakologikoa

Zenbaki berria argitaratu da: **“Osteoporosiaren tratamendu farmakologikoa: arrisku handiko populazioa identifikatzearen garrantzia”** du izenburu.

Bertan, osteoporosiaren tratamendu farmakologikoarekin zerikusia duten zenbait alderdi eztabaidagarri aztertzen dira, hala nola tratamenduen eraginkortasuna, segurtasuna eta iraupena. Halaber, merkaturatutako azken farmakoa (erromosozumaba) baloratzen da.

Dokumentuetarako estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

Aztertuko den medikamentu berria: zitisiniklina/zitisina

Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak (MBEB) **zitisiniklina/zitisinari** buruz egindako ebaluazio-fitxa argitaratu da.

Dokumentuetarako esteka:

- [Ebaluazio-fitxa](#)
- Kataluniako Farmakozainketa Buletinean ere kontsultatu daiteke medikamentu horren segurtasunari buruzko informazioa, [esteka](#) honetan.

SEFAPen infografia berria: Gehiago jakin nahi duzu haurren infekzioak maneiatzeko moduari buruz?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) pazienteei eta herritarrei zuzendutako infografia berria argitaratu du, haurren infekzioen maneiatzeko buruzkoa.

Tu Farmacéutico de Atención Primaria te ayuda

¿QUIERES SABER MÁS SOBRE CÓMO MANEJAR LAS INFECCIONES EN LA POBLACIÓN PEDIÁTRICA?

Muchas de las infecciones en la población pediátrica son producidas por virus y no precisan el uso de antibiótico.

Ante la aparición de fiebre, dolor o malestar general, el uso de antibióticos no tiene por qué estar indicado.

La mayoría de las veces, el manejo de estas dolencias se realizará solamente aliviando los síntomas.

Sólo debes administrar antibiótico al niño o niña cuando lo indique su pediatra y siguiendo sus indicaciones.

Es posible que su pediatra le haga una "prescripción diferida" del antibiótico.

¿Qué es esto? + info

El uso de antibióticos no está exento de riesgos.

El niño o niña podría tener efectos adversos y el antibiótico podría dejar de funcionar.

+ info

Te aconsejamos que pongas a tu niño o niña todas las vacunas que te recomienden en su centro de salud u hospital.

La vacunación evita la aparición de ciertas infecciones. Esto beneficia tanto al propio niño o niña como al resto de personas su entorno.

Ante cualquier duda, consulta a un farmacéutico u otro profesional sanitario

Infografía:

- "Sobre la resistencia" (Internet). Plan Nacional frente a la Resistencia a los Antibióticos (PRAN) de la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios (AEMPS).
- "Los virus causan más del 90% de infecciones que tienen los niños durante los primeros años de vida y por tanto no necesitan antibióticos" (Internet). Comité de Medicamentos de la Asociación Española de Pediatría.
- **Reclamaciones de imágenes:** Todas las imágenes by iStock.com (licencia de autoría en "CLIC para más información" de "Información sobre la elaboración/diseño de la infografía")
- Última revisión: 02/2024. N° 26
- Editado en Madrid por la Sociedad Española de Farmacéuticos de Atención Primaria (SEFAP)
- ISBN 2952-3734
- Para consultas o información sobre conflictos de intereses: pacientes@sefap.org
- Autores (en orden alfabético del 1er apellido): B. Escudero Vilaplana (CEL, SEFAP), B. Reyes Sastre (CPC, SEFAP), OM Silva Roldán (CEL, SEFAP), ME Trillo Gallo (CPC, SEFAP)
- Revisión interna: C. Casado Reina (CPC, SEFAP)
- Con la colaboración del Plan Nacional frente a la Resistencia a los Antibióticos (PRAN), proyecto coordinado por la Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios (AEMPS)
- Subvenciones al Ministerio de Sanidad.

"Infografías sobre medicamentos dirigidas a pacientes y ciudadanía". Más información sobre medicamentos en www.sefap.org/ciudadania

Dokumentua [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke.

2024an saihestu beharreko medikamentuen zerrenda (Revue Prescrire)

Aurreko urteetan bezala, Frantziako *Revue Prescrire* aldizkariak 2024ko txostena argitaratu du, zeinak jasotzen baitu Frantzian edo Europar Batasunean baimenduta dauden indikazioetan onuraren eta arriskuaren arteko erlazio kaltegarriak edukitzeagatik saihestu behar diren medikamentuen azterketa.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke txostena.

Farmakoaren jatorrizko indikaziotik urrun dauden indikazio berriak: abantaila gehigarria ote?

Duela gutxi, *Actualización en Medicina de Familia* (AMF) aldizkarian artikulu interesgarri bat argitaratu da, zeinean biltzen baitira helburu baterako diseinatuta egon arren nahi gabe hasierako indikazioarekin ageriko harremanik ez daukan beste alderdi bat hobetzen duten edo abantaila terauperetiko bihurtutako ondorio kaltegarri arin baten eraginez onuragarriak diren medikamentuen zenbait adibide, hala nola finasterida, sildenafiloa, hidroxiklorokina, bimatoprost, semaglutida eta GLP1 hartzailearen beste agonista batzuk.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, [esteka](#) honetan kontsultatu daiteke txostena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARPENA

Hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIA garrantzitsuenak:

- Adisocol® 150 mg konp (Azido ursodeoxikolikoa)
 - Adisocol® 450 mg 60 konp (Azido ursodeoxikolikoa)
 - Eulitop retard® 400 mg askapen luzeko 30 konp (Bezafibratoa)
 - Medebiotin Fuerte® 5 mg 10 anpoila 1 ml ahozko eta injertatzeko soluzioa (Biotina)
 - Siccafluid® 2,5 mg/g gel oftalmikoa 60 ontzi 0.5 g-ko dosi dosi bakarretan (Karbomeroa)
 - Siccafluid® 2,5 mg/g gel oftalmikoa 30 ontzi 0.5 g-ko dosi dosi bakarretan (Karbomeroa)
 - Ciclochem® baginala, 40 g-ko hodia (Ziclopiroxa)
 - Flutox® 10 mg 20 konp estalia (Kloperastina)
 - Dekristolan® 20.000 IU/ml 4 kapsula (Kolekaltziferola)
 - Otix® begiko tantak soluzioan 5 ml-ko flaskoa (Trimetoprim/dexametasona/polimixina B)
 - Estradot® 37,5 mikrogramo/24 h 8 txapla transdermikoak (Estradiola)
 - Micetal® 10 mg/g larruazaleko hautsa 30 g-ko potoa (Flutrimazola)
 - Foradil® aerolizer 12 mcg hautsa 60 kapsula (Formoterol fumaratoa)
 - Intuniv® 2 mg askapen luzeko 28 konp (Guanfazina)
 - Suniderma® % 0,127 krema 30 g (Hidrokortisona azeponatoa)
 - Suniderma® % 0,127 krema 60 g (Hidrokortisona azeponatoa)
 - Solsin®t 75 mikrogramo ahozko soluzioa dosi bakarreko 30 ontzi (Lebotiroxina)
 - Oxikodona/naloxona Teva® BFG 30 mg/15 mg askapen luzeko 56 konp (Oxikodona/naloxona)
 - Duoxona BFG 30 mg/15 mg, askapen luzeko 56 konp (Oxikodona/naloxona)
 - Tanonalla BFG 30 mg/15 mg, askapen luzeko 56 konp (Oxikodona/naloxona)
 - Taioma Plus BFG 30 mg/15 mg askapen luzeko konp 56 konp (Oxikodona/naloxona)
 - Nerdipina retard® 40 mg ask. kontr. 60 kapsula (Nikardipinoa)
 - Vasonase retard® 40 mg ask. kontr. 60 kapsula (Nikardipinoa)
 - Sandostatin® 100 mikrogramo/ml injektatzeko eta perfusiorako 1 ml-ko 5 anpoila (Oktreotida)
-

- Oxynorm® 20 mg 28 kapsula gogor (Oxikodona)
- Eurartesim® 320 mg/40 mg mintzez estalitako 12 konp (Piperakina/artenimola)
- Manidon retard® 120 mg askapen luzeko 60 konp (Berapamiloa)
- Dagan® 10 mg 30 konp aho-dispertsagarriak (Zolpidema)

Hornidura-BERREZARPENAK:

- Voltaren Retard® 75 mg askapen aldatuko 40 konp (Diklofenakoa)
- Zinna®t 250 mg/5 ml 50 ml-ko flaskoa (Zefuroxima)
- Molsidain® 2 mg 60 konp (Molsidomina)
- Sandostatin LAR® 20 mg hautsa biala (Oktreotida)
- Surmenalit® 200 mg 30 konp (Salbutamina)
- Cibacen® 5 mg 28 konp (Benazeprila)
- Tranalex® 50 mg 28 konp (Naltrexona)
- Rocaltrol® 0,25 mcg 20 kapsula (Kalzitriola)
- Fixaprost® 50 mcg/ml + 5 mg/ml soluzio-kolirioa 0,2 ml-ko dosi bakarreko 30 ontzi (Latanoprost/timolol)
- Primperan® 1 mg/ml 200 ml-ko flaskoa (Metoclopramida)
- Metoklopramida Pensa® 1 mg/ml 250 ml (Metoclopramida)
- Metoklopramida Kern Pharma® 1 mg/ml 250 ml-ko flaskoa (Metoclopramida)
- Amchafibrin® 500 mg konp (Azido tranexamikoa)
- Oftacilox® 3 mg/ml soluzio-kolirioa 5 ml (Ziprofloxazinoa)

Gogoratu Presbiden eskuragarri dagoela “Hornidura-gabeziak” botoia, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren behealdean. Bertan, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria ikus daiteke.



Medikamentuen hornidura-gabeziak hemen kontsultatu daitezke:

- Hornidura gabezien taula: Presbiden “Hornidura-gabeziak” botoia txertatu da eta taula honetara darama zuzenean:



- CIMA-AEMPS webgunean: Hornidura-arazoak

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

ZOSTER HERPESAREN KONTRAKO TXERTOARI BURUZKO INFOGRAFIA

Arabako ESIko Lehen Mailako Arretako Farmazia Unitateak zoster herpesaren kontrako txertoari buruzko infografia bat egin du, non ezaugarri garrantzitsuenak laburbiltzen diren.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, kontsultatu [esteka](#) hau.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko Pazientearen Segurtasunerako Taldeak, Arabako ESIko Farmazia Unitatearekin elkarlanean, pediatrian medikamentuen erabilera segurua sustatzeko kanpaina bat jarri du abian.

Helburua da medikamentuak emateko prozesuan akatsak minimizatzeko eta guraso eta zaintzaileentzako hezkuntza hobetzeko gomendioak ematea, biztanleria-talde horrentzako tratamenduen segurtasuna handitzen laguntze aldera. Neurriok Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Segurtasun Taldearekin ere adostu dira.

Kanpainak hiru medikamentu-mota ditu ardatz, antibiotikoak, antitermikoak eta antitusiboak, alegia, eta medikamentuok negualdian emateko unean gauzatuko da, farmazia komunitarioetan. Pauta posologiko zuzenaren berri emango da, kasuan kasuko ontzietan dosia eta haurraren izena adierazten dituzten eranskailuak jarriz eta, hala badagokio, medikamentua prestatzeko modua gogoraraziz.

Informazio gehiagorik nahi izanez gero, [esteka](#) hau kontsultatu daiteke.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKo ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Amaia Alzaga, Arantza Hernández, Javier Martínez eta Inés San José



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da